

1418/2025 EBAZPENA, uztailaren 15ekoa, Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Arabako Erakunde Sanitario Integratuko Anestesiologia eta Bizkorketa Zerbitzuko (Minaren Unitatea) Atal Sanitarioko Burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen osaera onartzen diren.

AURREKARIAK

Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearen martxoaren 3ko 394/2025 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Arabako Erakunde Sanitario Integratuko Anestesiologia eta Bizkorketa Zerbitzuko (Minaren Unitatea) Atal Sanitarioko Buru izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2025eko martxoaren 14ko EHAA 51 zk. eta 2025eko martxoaren 22ko EAO 70 zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2025eko apirilaren 11n amaitu zen.

Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearen maiatzaren 5ekoa 647/2025 Ebazpenaren bidez, prozesuan onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartu zen.

Horiek horrela, ebazpen honen bidez, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen izendapena argitaratzen dira.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendari erreklamazioak aurkezteko epea amaitutakoan, Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertze arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko webgunean argitaratzeko.

Era berean, Balorazio Batzordearen izendapena argitara emateko aginduko du.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetza Estatu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Anestesiologia eta Bizkorketa Zerbitzuko (Minaren Unitatea) Atal Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzea. (I. eranskina)

Bigarrena.- Balorazio Batzordearen osaera onartzea. (II. eranskina)



Hirugarrena.- Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Laugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiarri, hilabeteko epean, Ebazpena argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 15a.



Osakidetza ARABA ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA ARABA

Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentea,

ENRIQUE MANUEL BÁREZ HERNÁNDEZ.
KUDEAKETAKO ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN GERENCIA





I. ERANSKINA

ARABAKO ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUKO ANESTESIOLOGIA ETA BIZKORKETA ZERBITZUKO (MINAREN UNITATEA) ATAL SANITARIOKO BURU IZENENKO LANPOSTUA.

ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDAA

Onartuen behin betiko zerrenda:

- María Belén Beltrán de Heredia Pérez de Villarreal and.

Baztertuak:

- Inor ez.

Baztertzeko arrazoia:

- 1- Ez da langile finkoa eskatutako kategorian.
- 2- Ez dago jarduneko zerbitzuan eskainitako lanpostuaren lanbide-talde bereko kategorian.
- 3- Ez du titulazioari buruzko eskakizuna betetzen.
- 4- Ez du lan-esperientziari buruzko eskakizuna betetzen.
- 5- Eskabidea epez kanpo aurkeztu da.
- 6- Bestelakoak.



II. ERANSKINA

ARABAKO ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUKO ANESTESIOLOGIA ETA BIZKORKETA ZERBITZUKO (MINAREN UNITATEA) ATAL SANITARIOKO BURU IZENENKO LANPOSTUA.

BALORAZIO BATZORDEA

Batzordeburua:

Titularra: Juan José TIMIRAOS FERNÁNDEZ jn.

Ordezkoa: Pedro MORRONDO VALDEOLMILLOS jn.

Lehenengo batzordekidea:

Titularra: Itziar NEVE LETE and.

Ordezkoa: María Esther CUESTA GARCÍA and.

Bigarren batzordekidea:

Titularra: Raúl de FRUTOS PARRA jn.

Ordezkoa: Ane MARTÍN DE LA FUENTE and.

Hirugarren batzordekidea:

Titularra: Deiene LASUEN AGUIRRE and.

Ordezkoa: Francisco de Borja MUGABURE BUJEDO jn.

Laugarren batzordekidea:

Titularra: Miguel Ángel ARZUAGA ESQUINO jn.

Ordezkoa: María Pilar MACUA BIURRUN and.

Idazkaria:

Titularra: María Rosario MARTÍN ROMÁN and.

Ordezkoa: María Pilar SÁNCHEZ GARDUÑO and.